

AMETSETAKO MENDIBUELTA

1977. urtea zen Euskal Herriko herri batean, Zumaia deitua. Herri honetan Markel izeneko mutiko bat bizi zen. Bera ile beltzekoa, altua eta irribarretsua zen. Markel bere anai txikiarekin eta bere gurasoekin bizi zen. Bere aita Patxi deitzen zen bere ama Ane eta bere anaia Xuban. Markel goizero ikastolara joaten zen eta beraren lagunekin elkartzeko. Berak bi lagun on zituen Aitor eta Julen. Eguerdia guztietan bazkaltzera joaten zen amonaren etxera eta arratsaldetan lagunekin joaten zen kalera. Gabetan bere etxean bideojokoetan jolasten egoten zen. Markel institutuan zegoen ikasten. Bere ama medikua zen eta bere aita mekanikoa zen.

Goiz normal bat zen eta Markel esnatu egin zen. Markel ez zen ondo sentitzen.

— Ama tripako mina dut — esan zuen Markelek.

— Ez joan ikastolara eta deskantsatu — erantzun zion bere amak.

Markel etxean gelditu zen telebista ikusten bere ohean.

Ordu biak zirenean bere anai txikia etxera heldu zen eta biok batera bazkaldu zuten.

Bazkaldu ondoren beraren gurasoak heldu ziren.

— Hobeto ahal zaude? — galdetu zion bere aitak.

— Bai, hobeto nago — erantzun zuen Markelek.

— Ba lauretan txakurrarekin mendi buelta bat egitera joan — esan zion bere aitak.

Bazkaldu ondoren Markel eta bere naia bideojokoetan jolasten egon ziren lauretaraino.

— Xuban ni banoa pintxorekin buelta bat ematera — esan zuen Markelek.

— Zurekin joan ahal naiz? — galdetu zion Xubanek.

— Noski baietz! — erantzun zion Markelek.

Markel eta Xuban etxetik irten ziren inoiz ez egondako mendi batera. Igotzen zihoazen bitartean gehiago iluntzen zen.

— Markel etxera bueltatu behar gara iluntzen dabil — Esan zuen Xubanek.

— Lasai bi linterna sartu ditut motxilan etxetik irten aurretik — Erantzun zion Markelek.

Bidean zihoazenean Aitor eta Julenekin topo egin zuten eta denok batera jarraitu zuten.

Tontorrera iristerakoan ez zen ezer ikusten. Markelek bi linternak atera zuen, baina biak jausi egin zitzaion eta pilak apurtu egin ziren. Markelek mobileko linternarekin probatu zuen baina argi gutxi du eta ez da oraindikan ezer ikusten. Orduan Markelek bere aitari deitu zion.

— Aita mendi baten tontorrean gaude baina ezin dugu jaitsi oso ilun dago eta — esan zuen Markelek.

— Lasai Joango naiz zeuen bila — esan zion bere aitak.

Denak posaz bete ziren baina bat batean otso batzuk euren gana abiatu ziren. Denak korrika egiten hazi ziren eta mendiko beste leku batera joan ziren. Aita bitartean Eurak lehen zeuden tokira heldu zen. Baina ez zegoen inor eta Markeli berriz deitu egin zion. Markelek ez zuen bere aitaren deiak artzen orduan aitek zeozer gertatu zela susmatu zuen. Bitartean eurak baila batzuz inguratuta zeuden eta bailetatik ez pasatzeko jartzen zuen. Eurak ez zuten ikuzi kartel hori orduan denak sartu ziren. Sartu ziren lekua laborategi abandonatua zen. Laborategi horretan Animaliekin esperimentuak egiten zituzten or zeudenean bat batean otsoak joan egin ziren eta atzera begiratu zuten eta animalia oso handi bat irten zen laborategi horretatik. Denek korrika egin zuten eta egoteko leku bat aurkitu zuten. Bertan zeudenean Markelek mugikorra hartu zuen eta dei galduak zuen bere aitarenak orduan bere aitari deitu zion.

— Non zaudete? — galdetu zuen Markelen aita.

— Otso batzuk guregana etorri dira eta korrika joan gara eta orain ez dakit non gauden — erantzun zion Markelek.

— Zuek or jarraitu nik ideia bat dut — esan zuen Markelen aita.

Markelen aita bengalako pistola bat zuen kotxean orduan hartu egin zuen eta disparatu egin zuen. Disparatzerakoan eurak korrika joan ziren bertara baina argiak animalia guztien atentzioa deitu zuen orduan animalia denak korrika joan ziren Markelen aitarengana. Denak korrika zihoazen eta euren atzetik soinu asko zegoen jarraitu egin zuten. Heldu zirenean azkar kotxean joan ziren eta animalia denak atzetik zihoazen. Ia etxera heltzen zeuden baina animaliek ia harrapatu zuten eta aita kotxea frenatu zuen bengala bat piztu zuen eta korrika joan zen. Animalia denak aitaren atzetik joan ziren eta bitartean aitorrek kotxea gidatu zuen. Aitaren bengala emendatu egin zen eta denak hil egin dela pentsatu zuten baina eurak etxeruntz jarraitu zuten.

Markel esnatu egiten da baina ez da konturatzen amets gaizto bat dela eta berak pentsatzen du benetan pasatu dela orduan triste dago. Ikastolara heldutakoan Aitor eta Julen ikusi zituen.

— Zer moduz zaudete? — galdetu zuen Markelek.

— Ondo gaude — erantzun zuten Aitor eta Julenek

— Atzo mendian oso gaizki pasatu genuen ezta? — esan zuen Markelek.

— Gu atzo ez ginen mendira joan Markel — esan zuten Julen eta Aitorrek

— zela ezetz atzo zuek biok nire anaia, nire txakurra eta ni mendira joan ginen — esan zuen Markelek.

Aitor eta Julenek ez zuten ezer ulertzen. Klasea bukatutakoan Markel etxera triste zihoan eta etxera heldutakoan bere aita zegoela ikusi zuen orduan dena amets gaizto bat izan zela konturatu zen.

Eta bat batean poztu egin zen.

AMAIERA